

Recomendación sobre el consentimiento para el matrimonio, la edad mínima para contraer matrimonio y el registro de los matrimonios

Resolución 2018 (XX) de la Asamblea General, de 1º de noviembre de 1965

La Asamblea General,

Reconociendo que es conveniente propiciar el fortalecimiento del núcleo familiar por ser la célula fundamental de toda sociedad y que, según el artículo 16 de la Declaración Universal de Derechos Humanos, los hombres y las mujeres, a partir de la edad núbil, tienen derecho a casarse y fundar una familia, que disfrutan de iguales derechos en cuanto al matrimonio y que éste sólo puede contraerse con el libre y pleno consentimiento de los contrayentes, Recordando su resolución 843 (IX), de 17 de diciembre de 1954,

Recordando además el artículo 2 de la Convención Suplementaria de 1956 sobre la Abolición de la Esclavitud, la Trata de Esclavos y las Instituciones y Prácticas Análogas a la Esclavitud, en el que se estipulan ciertas disposiciones relativas a la edad para contraer matrimonio, al consentimiento de los contrayentes y al registro de los matrimonios,

Recordando asimismo que, de conformidad con el inciso b del párrafo 1 del Artículo 13 de la Carta de las Naciones Unidas, la Asamblea General puede formular recomendaciones para ayudar a hacer efectivos los derechos humanos y las libertades fundamentales de todos, sin distinción por motivos de raza, sexo, idioma o religión,

Recordando también que el Consejo Económico y Social, conforme al Artículo 64 de la Carta, puede concertar arreglos con los Estados Miembros de las Naciones Unidas para obtener informes respecto de las medidas tomadas a fin de hacer efectivas sus propias recomendaciones y las que haga la Asamblea General acerca de materias de la competencia del Consejo,

1. Recomienda que los Estados Miembros

Ezkontzarako adostasuna, ezkontzeko gutxiengo adina eta ezkontzen erregistroari buruzko Gomendioa.

1965. urteko azaroaren 1eko Biltzar Orokorraren 2018 (XX) Ebazpena

Biltzar Orokorrak,

Aitortuz komenigarria dela familia-gunea indartzeko bidea zabaltzea, familia baita gizartearen oinarritzko muina; aitortuz, halaber, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 16. artikulua arabera, gizon eta emakumeek eskubidea dutela ezkontzeko eta familia osatzeko, behin horretarako adina dutenean, ezkontzari dagokionez eskubide berberak dituztela, eta ezkontzeko ezinbestekoa dela ezkongaien adostasun aske eta osoa, Gogoratuz 1954. urteko abenduaren 17ko 843 (IX) ebazpena,

Gogoratuz, gainera, Esklabotza, Esklaboen salerosketa eta Esklabotzaren antzeko Erakundeak eta Eginerak ezabatzeari buruzko 1956. urteko Konbentzio Osagarriaren 2. artikulua; artikulua horretan xedapen batzuk zehazten direla ezkontzeko adinari, ezkongaien adostasunari eta ezkontzen erregistroari buruz,

Gogoratuz, halaber, Nazio Batuen Gutunaren 13. artikulua 1. paragrafoko B atalarekin bat etorritik, Biltzar Orokorrak gomendioak egin ditzakeela denon giza eskubide eta oinarritzko askatasunak gauzatzen laguntzeko, bereizkeriarik gabe, arraza-, sexu- hizkuntza- edo erlijio-arrazoiengatik,

Gogoratuz, horrez gain, Ekonomia- eta Gizarte-kontseiluak, Gutunaren 64. artikuluaekin bat etorritik, Nazio Batuen estatu kideekin informazioa lortzeko akordioak moldatu ditzakeela, zeri buruz eta, Kontseiluaren eskumenaren gaien inguruan bere gomendioak eta Biltzar Orokorrak egin dituenak betetzeko hartu diren neurriei buruz,

1. Gomendatzen du arlo horretan oraindik

que aún no hayan adoptado disposiciones legislativas o de otro orden en este sentido hagan lo necesario, con arreglo a su procedimiento constitucional y a sus prácticas tradicionales y religiosas, para adoptar las disposiciones legislativas o de otro orden que sean indispensables para hacer efectivos los principios siguientes:

Principio I

- a) No podrá contraerse legalmente matrimonio sin el pleno y libre consentimiento de ambos contrayentes, expresado por éstos en persona, después de la debida publicidad, ante la autoridad competente para formalizar el matrimonio, y testigos, de acuerdo con la ley.
- b) Sólo se permitirá el matrimonio por poder cuando las autoridades competentes estén convencidas de que cada una de las partes ha expresado su pleno y libre consentimiento ante una autoridad competente, en presencia de testigos y del modo prescrito por la ley, sin haberlo retirado posteriormente.

Principio II

Los Estados Miembros adoptarán las medidas legislativas necesarias para determinar la edad mínima para contraer matrimonio, la cual en ningún caso podrá ser inferior a los quince años; no podrán contraer legalmente matrimonio las personas que no hayan cumplido esa edad, salvo que la autoridad competente, por causas justificadas y en interés de los contrayentes, dispense del requisito de la edad.

Principio III

1. Todo matrimonio deberá ser inscrito por la autoridad competente en un registro oficial destinado al efecto;
2. Recomienda que los Estados Miembros, cuanto antes, y de ser posible dentro de los dieciocho meses siguientes a la fecha de su aprobación, sometan la Recomendación sobre el consentimiento para el matrimonio, la edad mínima para contraer matrimonio y el registro de los matrimonios, contenida en la presente resolución, a las autoridades competentes para adoptar medidas legislativas o de otro orden;

lege-xedapenik edo bestelakorik hartu ez duten estatu kideek premiazkoa egin dezatela, konstituzio-prozeduraren eta tradiziozko eginera eta erlijio-egineren arabera, ondorengo printzipioak gauzatzeko nahitaezkoak diren lege-xedapenak edo bestelakoak hartzeko:

1. printzipioa

- a) Legez ezin izango da ezkondu bi ezkongaien adostasun oso eta askerik gabe. Adostasuna bakoitzak adierazi beharko du, beharrezko deiak egin ondoren ezkontza gauzatzeko agintari eskudunaren eta lekukoen aurrean, legearen arabera.
- b) Ahalorde bidezko ezkontza bakar-bakarrik baimenduko da agintari eskudunak ziur daudenean alderdi bakoitzak adostasun askea eta osoa adierazi duela, agintari eskudun baten aurrean eta lekukoen aurrean, legeak ezarri bezala, harrezkero adostasun hori ukatu gabe.

II printzipioa

Estatu alderdiek beharrezko legegintza-neurriak hartuko dituzte ezkontzeko gutxiengo adina zehazteko; adin hori inoiz ere ez da izango hamabost urtetik beherakoa; eta adin hori bete ez duten pertsonak ezin izango dira legez ezkondu, salbu eta, agintari eskudunak, egiaztatutako arrazoiengatik eta ezkongaien mesedetan, adin-baldintza hori salbuesten duenean.

III printzipioa

1. Agintari eskudunak ezkontza oro inskribatuko du ondorio horretara bideratuta dagoen erregistro ofizialean.
2. Gomendatzen du estatu kideek jar dezatela agintari eskudunen esku, ahalik eta arinen eta ahal dela, gomendioa onetsi den datatik hurrengo hemezortzi hilabeteren barruan, zer eta, ebazpen honetan dagoen Gomendioa, ezkontzeko adostasuna, gutxiengo adina eta ezkontzen erregistroa barneratzen duena, horri dagozkion legegintza-neurriak edo bestelakoak hartuak izan daitezen;

3. Recomienda que los Estados Miembros, a la mayor brevedad posible después de adoptadas las disposiciones a que se hace referencia en el párrafo 2 de este documento, informen al Secretario General de las medidas que hayan tomado con arreglo a la presente Recomendación para someter ésta a la autoridad o autoridades competentes, dándole a conocer cuáles son esas autoridades;
4. Recomienda asimismo que los Estados Miembros presenten al Secretario General después de transcurridos tres años, y en adelante cada cinco años, un informe acerca de su legislación y prácticas en las materias que son objeto de la presente Recomendación, en el cual se indicarán la medida en que se hayan hecho efectivas o tengan el propósito de hacer efectivas las disposiciones de la Recomendación y las modificaciones que hayan estimado o estimen necesarias para adaptar o aplicar la Recomendación;
5. Pide al Secretario General que prepare para la Comisión de la Condición Jurídica y Social de la Mujer un documento que contenga los informes recibidos de los gobiernos sobre los métodos para poner en práctica los tres principios básicos de la presente Recomendación;
6. Invita a la Comisión de la Condición Jurídica y Social de la Mujer a que examine los informes recibidos de los Estados Miembros en cumplimiento de la presente Recomendación, e informe al respecto al Consejo Económico y Social, formulando las recomendaciones que estime oportunas.

3. Gomendatzen du estatu kideek, ahalik eta arinen eta agiri honen 2. paragrafoak aipatu xedapenak onetsi eta gero, Idazkari Nagusiari jakinarazi diezazkiotela Gomendio honen arabera hartu dituzten neurriak, gomendio hori agintari eskudunaren edo eskudunen esku jartzeko, Idazkariari adieraziz, era berean, zein diren agintari horiek;
4. Gomendatzen du, berebat, estatu kideek aurkez diezaiotela Idazkari Nagusiari txosten bat, hiru urte igaro ondoren, eta aurrerantzean bost urterik behin, euren legeriari eta eginerei buruz, Gomendio honek xede dituen gaitetan; txostenean adieraziko dira zenbateraino gauzatu diren edo gauzatuko diren Gomendioaren xedapenak eta Gomendioa egokitzeko edo aplikatzeko beharrezkotzat jo dituzten edo jotzen dituzten eraldaketak;
5. Idazkari Nagusiari eskatzen dio presta dezala Emakumearen Izaera Juridiko eta Sozialaren Batzordearentzat gobernuengandik jasotako txostenak biltzen dituen agiria, Gomendioaren oinarritzko hiru printzipioak abian jartzeko metodoei buruz;
6. Emakumearen Izaera Juridiko eta Sozialaren Batzordea gonbidatzen du azter ditzan estatu kideengandik jasotako txostenak, Gomendio hau betetzeko, eta informa dezala horri buruz Ekonomia- eta Gizarte-kontseilua, egokiak irizten zaizkion gomendioak eginez.